

MATIGNONGO BILERAREKIN HASITAKO ELKARRIZKETA PROZESUA LAGUNDU NAHI DUTE KLANDESTINOEK

Baldintzarik gabeko su-etena iragarri dute Korsikako lau erakunde armatuk

■ «Jospinekin hasitako elkarrizketa publikoari gure sustengua berresten diogu», zehaztu dute prentsaurreko batean


■ Lau erakunde armatuek jakiterat eman dute, hemendik aurrera, FLNC izen soila hartuta, bat egin dutela

■ Su-etena aldarrikatu dutenen artean Clandestinu dago, zeinak azaroaren 25eko atentatu ikusgarriak bere gain hartu zituen

Allande Sokarros / Baiona

KORSIKAKO lau erakunde armatu nazionalistak, elkarrekin egindako prentsaurreko batean, «baldintzarik gabeko su-eten» bat iragarri zuten atzo. Lau erakunde hauek dira: FLNC historikoa, 1996eko ekainak 5eko FLNC, Fronte Ribellu eta Clandestinu. Hauen artean, orain arte izandako jardueragatik eta agerizko politika arloan A Cuncolta Independentistarekin daukan ordezkartzarekin, garrantzia handiena duena da, ezbairik gabe, FLNC historikoa. Honek zuen, hain zuzen ere, iragan abenduaren 13an, Lionel Jospinek Korsikako 28 hautetsi Matignonerat gonbidatu zituen egunean bertan, «ekimen historiko bat hartzeko prest» zegoela adituz eman zuen.

«Denboraz eta aplikapen leku baldintzarik gabeko su-eten bat iragartzen dugu; hori da bakearen alde erakutsi nahi dugun bermea», adierazi zuen atzo lau erakunde klandestinoen izenean hitz egin zuen eledunak, bere inguruan armatuta eta maskarata berrogei bat lagun zituela. Bost kazetariren aurrean bozeremaileak jarraitu zuzenez, «Jospinek agerian utzita-



FLNC historikoa, Fronte Ribellu, Clandestinu eta FLNC izen soilekoaren prentsaurrekoa, atzo goizean.

ko elkarrizketarako borondatea ikusita, su-eten hau aldarrikatzea erabaki dugu. Bakeari aukera berri bat nahi diogu eman eta, beraz, Matignonen hasitako elkarrizketa publikoari gure sustengua berresten diogu. Espero dugu hasitako negoziazioak Korsikarentzako garapen xede bat finkatzerat iritsiko direla, eta legalitatean diharduten nazionalistek konfiantza egiten

diegu helburu hori lortzeko». Hitz egileak jakiterat eman zuen su-eten iragarpen hau egin duten lau erakundeek, hemendik aurrera, FLNC izen soila hartuta, bat egiten zutela.

«Frantziako agintari politikoaren jarrera aldaketarekin zerikusia izan dute, ziur aski, Aiacciuko atentatuek», adierazi zuen eledunak, «baina orain, Korsikako hautetsiek,

herri mugimenduak eta indar guztiek bideratuko dituzten kontzertazioen ondorioei beha egongo gara», gaineratu zuen. Aipatutako atentatuak iragan azaroaren 25ean eginak izan ziren, eta Frantziako Administrazioari bi egoitza larri kaltetu zituzten. Ekintza haiek Clandestinu izeneko erakundeak hartu zituen bere gain, zeina artean ezezaguna baitzen.

FLNC historikoak su-eten bat iragartzea ez da ezustekoa izan. Izan ere, Lionel Jospin lehen ministroak Korsikako hautetsiak hartu zituen egunean bertan, erakunde horrek jakinarazi zuen elkarrizketa bide hori babesten zuela, eta itxaropentsua antzematen bazuen, «ekimen politiko garrantzitsu bat egiteko prest» zegoela bere aldetik. Hara, beraz, ekimen hori. Ezustea da, ordea, beste hiru erakunde armatuk bat egitea FLNC historikoaren su-etinarekin.

Haatik, Fronte Ribellu eta Clandestinuren

Aurretik idatzitako gidoiari jarraitzen

■
Allande Sokarros

kasuan, FLNC historikoarekin bat etortze horrek indar emanen lioke Korsikako egoera politikoaren aditu zenbaitek daukaten susmo bati, hau da, bi erakunde horiek sinadurak besterik ez direla, FLNC historikoak bere gain hartu nahi ez dituen atentatuentzako. Erabat hala ez balitz ere,

argi da bi talde horietako eta FLNC historikoko ekintzaileen artean, nolabaiteko loturak badirela. FLNC izen soilekoari dagokionez, ez da hain nabaria FLNC historikoarekiko hurbiltasuna, erakunde honek bere sorrera azaldu baitzuen, 1996ko maiatzaren 5ean, FLNCko bi adarrek —histo-

rikoak eta bide ohikoak— hazitako etsaigoa salatzen.

Alabaina, errezelo zertxobait egon daiteke ekimen honen inguruko nondik-norakoaz. Jospinek lau haizetara aldarrikatu du elkarrizketa prozesua «gardentasun osoan» egingo dela eta, beraz, ez dela ezkutuko traturik izango, lehen egon zen moduan. Hala izatea ondo legoke, baina azken egunotako gertakariak ongi bezala igaro direla eman du itxura, aurretik idatzitako gidoi bat jarraitzen ari balira bezala.

su-etenak

Zortzigarren su-etena 20 urtetan

■ 1975. urtean sortu zen FLNC eta orduz gero zortzi aldiz hasi du su-etena.

1981eko apirila • Lehendakartzarako hauteskunde bezperan, FLNC ekintzak geratu zituen. 1982eko otsailan ekin zion berriro, lehen Gobernu sozialistak Korsikari emandako lehen estatutua gustuko ez zutelako.

1988ko apirila • Miterranden bigarren garaiaren ostean, berriro su-etena indarrean jarri zuen, baina ez zuen asko iraun.

1991ko urtarrila • Talde armatua bitan zatitu eta sei astetara, FLNC Ohiko Kanalak «ekintza militarren erabateko etetea» jakinarazi zuen.

1996ko urtarrila • Traluncan, FLNC Kanal Historikoko 600 kidek su-etena iragarri zuten «Korsikaren arazo nazionalaren konponbideari bidea irekitzeko». Udan hautsi zuen, Alain Juppereko Gobernuaren jarrera aldaketa susmatuta.

1997ko uztaila • FLNC historikoak hiru hilabete tartea eman zion Jospin Gobernu berriari «Korsikaren eskakizunei erantzuteko». 1998ko urtarrilean puskatu zuen ofizialki.

1998ko otsaila • Abertzaletan disidenteez Claude Erignac prefeta hil eta berehala, hiru hilabetez eten zuen borroka FLNC historikoak.

1999ko urtarrila • Korsikako Asanblearako bozen bezperan, historikoen su-etena ezarri zuten. Haien gertuko Corsica Nazione nagusti zitzaizaien beste abertzaleei.